


(EUSKAL) HALUZINAZIO BAT

Eneko Aizpurua Urteaga



Fede autoa Madrilgo plaza nagusian (1683), Francisco Rizi.

https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Francisco_Ricci_-_Auto_de_Fe_%281683%29.jpeg

bestehitzak
||| |

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



otherwords
||| |

(EUSKAL) HALUZINAZIO BAT

The time is out of joint

William Shakespeare, Hamlet

I

Bizikidetzaz gogoetan ari naizela, nire gogoak Donostiako Alde Zaharreko Konstituzio plazara, San Sebastian egunaren bezperako festara itzuli da berriro. Baina oraingoan plaza harresi sendoko gotorleku bihurtu da, zein baino zein garaiagoak diren dorrez inguratua eta koroatua, Toscanako Monteriggioniko Erdi Aroko gotorlekua irudi.

Plaza erdiko oholtza erraldoiaren gainean eserita angula ogitarteko bana jaten eta berriketan ari dira Gaztelubide konpainiako danborjoleak. Bat-batean, Gaztelubide elkartearen estandarte aldean daraman gizon bat gerturatu zaie piperturik. Alferkeriak utzi eta berehala lanean hasteko agindu die danborjoleei espektakulua hastera doala ohartarazi ondoren. Danborjole nagiek gogo handirik gabe erreparatu diote udal liburutegi zaharraren

fatxadako goiko aldean dagoen erlojuari, zeinaren orratzak atzerantz baitoaz ziztu bizian.

Hamabiak jo dituenean, ogia eta berriketak utzi, eta danbor errepika luze bat jo dute danborjoleek oin-sabelak irmo jarrita. Liburutegiko fatxadan, *Dulce et decorum est pro patria mori* idatzita daukan idazkuna argiztatu da. Ondoren Donostiako orfeoiko kideak oholtzara igo, eta abesten hasi dira:

Dies iræ, dies illa

Solvat sæclum in favilla

Teste David cum Sibylla!

Une horretan janzki eta txano zuriak daramatzen eliteko sukaldarien talde bat atera da liburutegiko balkoira. Balkoiaren bazter batean biola, txelo, biolin eta lautez osatutako hari laukote batek *Beotibarko Gudua* abestiaren akordeak jotzen dituen bitartean, oholtzako foku handiek Botticelliren *Infernuko mapa* margolanaren bertsio gaurkotu baten 4K animazioko bideo erraldoi bat proiektatu dute

liburutegiaren fatxadan. Margolaneko irudiak hiru dimentsioko izaki mugikor bihurtu dira haluzinaziozko mundu digital batean. Donostiako Alde Zaharreko Konstituzio plaza, deabruari saldutako arimaz beterik, Euskal 3Dko Infernu edo *Pandemonium* bilakatu da. Irudi luke azpimunduak bere ateak ireki eta inon diren gizatxar eta etsai itsusienak askatu dituela. Zigor izugarriak dituzten deabru adardun, hegaldunak bekatari biluziak jipoitzen, «mundu pasakor hau negarrezko ibar bat da» errepikatuz heriotzaren kantua abesten ari diren hiletariak, gizaki biluzi eta bururik gabeak, gorputzak gorotzetan murgilduta edo odolatan irakiten dituzten arimak galduak, torturatuak, traidoreak, hipokritak, ustelak, ahotik kea dariola dauden izaki izugarriak. Liburutegiaren fatxadan bizi-bizirik, harat-honat dabilta denak herrestarien pare, plazaren Erdiko su sakratu garbitzailean kiskalitako liburu mordoei darien ke beltza Konstituzioaren gotorlekuko harresi garaien gainetik zeru hodeitsurantz astiro goratzen den bitartean, zeinean gaiztoak zintzoetatik bereiziko dituen Azken Judizioa

iragarri baitute zazpi aingeru hegaldunek tronpeta apokaliptikoen hotsean.

Konstituzio plazako jende saldoa beldurrez, irritsez, liluraz dago begira paisaia danteskora, zurrut eta purrut, zuziak sutan eskuan, liburu kiskalien aurrean sakelakoekin *selfie*ak ateratzen eta sare sozialetara igotzen dituela.

Margolaneko irudi bizidunak foku handien zuloetan desagertu direnean, eliteko sukaldarien burua, hots, Sukaldari Gorena karguaren izenez, Ahalguztiduna ezizenez, *Michelin* izar urrekarak jantzi zuriaren lepoan eta *Masterchef* izarren gremio globalaren xingola distiratsua paparrean, apur bat aurreratu da zamau zuri batez apainduta dagoen zurezko oturuntza mahai luzera. Gero eskua Lege Zaharren faksimile batean pausatu eta hotsandiz zin egin du:

Jainkoaren aurrean apalik,
Eusko Lur gainean zutunik,
Asaben gomutaz,

Gernikako Zuhaizpean,

Herri ordezkarien aintzinean

Nire agindua ondo betetzea zin dagit

Zin egin ondoren, «Lege Zaharraren aurrean zutik» jartzeko agindu die Ahalguztidunak plazan bildutakoei. Jendetzak bere agindua esaneko bete duenean, masen lider karismadunak hotsandiz jakinarazi du: «Bizikidetzaren izenean Matxinaden Auzitegia eratutzat jotzen dut». Jende masa «Gora Odolaren Auzitegia, gora burdinazko sukaldaria» oihuka ari den bitartean, ahots sendoz akusatua oholtzara ekartzeko agindu, eta oturuntza mahaiaren erdian, mahaiburutzan jarri da zutik Sukaldari Gorena gainerako sukaldariak alde banatan dituela.

Quantus tremor est futurus,

quando iudex est venturus,

cuncta stricte discussurus!

Auzitegiaren idazkariak egindako keinuari jarraiki, Gernikako juntetxeko mazodun batek tronpeta jo du, eta Konstituzio plazako gotorlekurako sarbidea ixten duen atelodi altxagarria astiro igo dute almenetatik abiada bizian jaitsi diren zaindarien. Hiruzpalau zaldiko-maldikok oholtza ondora ekarri dute tiraka kaiola gurpildun handi bat. Jendetza elkarren gainka pilatu da kaiolaren inguruan.

*Tuba mirum spargens sonum
per sepulcra regionum,
coget omnes ante thronum.*

Zaldiko-maldikoen oholtzara igo dute kaiola polea batzuei tiraka, eta gero kaiolatik atera dute akusatua. Nano bat da. Frigiar txanoaren antza duen buruko txintxarriduna dauka, ahoan mozala eta soinean buhame jantzi zarpail, koloretsu bat. Zaldikoen oholtza erdira eraman eta herriaren bistan jarri dute nanoa bultzaka eta laidoka:

Ai urdea, ai urdea,
urde urde handia,
ai urdea, ai urdea,
urde buhame handia.

Akusatua belauniko jarri eta otoitz egiten hasi da balkoira
begira oinak eta eskuak estutzen dizkioten bilurrak kurrinka
eta txanoaren txintzarriak kriskitinka:

Sukaldari deabru gurea
Konstituzio plazako balkoian zaudena
madarikatu izan bedi zure izen
gorrotagarria

Jendetzak, asaldaturik eta zuziak astinduz, akusatuaren
otoitzak eten ditu «erre ezazue bufoia» eta «bufoia sutara»
oihuka.

Mors stupebit et Natura,

*cum resurget creatura,
iudicanti responsura.*

Zaldiko maldikoek oholtzaren bazter batean dagoen armategira eraman dute akusatua, eta han balezta, gezi, lantza, trabuko, bala eta gainerako munizioekin batera dauden lege testu batzuetara hurbildu dute arrastaka. Bufoia hautsez betetako liburukien aurrean belaunikarazi, eta Eskritura Santuei, Espainiako eta Frantziako konstituzioei, Nazio Foralaren Lege Zaharren konpilazioei, Gernikako Estatutuari, Nafarroako Foru Hobekuntzari eta gainerako liburu profetikoei banan-banan muin ematera behartu dute.

*Liber scriptus proferetur,
in quo totum continetur,
unde Mundus iudicetur.*

Sukaldari Gorena mahaiburutzako besaulki zabalean eseri,
eta auzitegiko gainerako sukaldariak alde banatan dituela,
oturuntza eta epaiketa hasitzat eman ditu.

*Iudex ergo cum sedebit,
quidquid latet apparebit,
nihil inultum remanebit.*

Ataka gaiztotik ateratzeko zer egin ez dakiela, akusatua
dardarka dago, akusatuen aulkian eserita, jendetzaren
bistan. Bat-batean sekulako zalaparta sortu da oholtzaren
inguruan bildutakoen artean. Oihuak, biraoak, txistuak
entzuten dira.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

Masa suminduek bufoiaren ehiza hasi dute. Dozenaka asaldatuk jendetzaren artetik oholtzara jauzi egin, eta bufoia jotzen saiatu dira. Zaldiko-maldikoek nola edo ahala lortu dute erasotzaileak oholtzatik jaistea. Jendetza haserre bizian dago, oro har bere eskubideak eta bereziki Frederiko II.ak 1221ean koblakarien aurka kaleratutako legean herritarrei bufoiak iraindu, kolpatu eta are hiltzeko ere aitortzen zien oinarrizko eskubidea urratu dituztela oihuka.

Quid sum miser tunc dicturus?

Quem patronum rogaturus,

cum vix iustus sit securus?

Sukaldari Gorenak bertaratuei epaiketa eta oturuntza hasiak direla ahoa betean ohartarazi, eta txilina jo du isiltasuna eskatzeko. Orfeoiko kideek abesteari utzi diote. Baina herri xeheak marru eta orro jarraitu du, ahotik listua dariola dagoen zakur gosetua balitz bezala, oholtzara eta balkoira begira, non sukaldari tripazainen mahaikada diren

jaki gozo eta harrigarrienak dastatzen ari baita zentzumenen gozamen erabateko eta gorenean. Egoera lasaitu nahian, mahaiko janari hondarrak plazara jaurtitzeko agindu die Sukaldari Gorenak zerbitzariei. Jende andana bat pilatu da balkoitik jaurtitako haragi hezurren eta ogi koskorren inguruan zakur deslai gosetiak balira bezala. Jendea hezurak mihiztuz baretu denean, Sukaldari Gorenaren aginduei jarraiki, akusazioek lekukoei deitu diete.

Dultzaineroak, kilikiak eta buruhandiak aurretik dituztela, hiru erraldoi igo dira oholtzara dantzan lekukotza ematera: Fernando Katolikoa, Joan III.a Albretekoa eta Katalina I.a Foixekoa. Hirurek berretsi dute akusatuak egon behar zuela nahitaez beren heriotzaren atzean, bestela ez liratekeela bata bestearen atzetik hain denbora tarte txikian hilko, «noiz eta Nafarroak Gaztelarekin bat egin berritan» nabarmendu du Fernando Katolikoak, «noiz eta Gaztelak Nafarroa konkistatu berritan» azpimarratu dute Joan III.a Albretekoak eta Katalina I.a Foixekoak. Eta beren lekukotzak funtsatzeko beren heriotza datak –1516ko

urtarrilaren 23a, 1516ko ekainaren 17a eta 1517ko otsailaren 12a hurrenez hurren– egiaztatzen dituzten dokumentuak eta jatorrizko testamentuak aurkeztu dituzten bitartean, hiru monarkek gehitu dute akusatuak historiografia ororekin txantxak egin dituela eta inoiz ez duela parte hartu gertakari historikoa gogoratzeko ekitaldi ofizialetan edo alternatiboetan. Esaterako, Nafarroako Gobernuak «Nafarroaren eta Gaztelaren bat egitearen 500. urteurrena» ospatzeko antolatu zuenean edo Amaiurko gazteluaren defentsan parte hartu zutenen oroimenez beren monolitoaren aurrean urtero egiten diren ekitaldietan. Horretaz gainera, nabarmendu dute jendeak monarken legitimitatea zalantzan jarri eta beraien izena eta izana ardatz dituzten oroimen, gertakari historikoak eta historia bera ahaztu ditzan saiatu dela, eta, horren guztiaren erakusgarri, akusatuari leporatu diote historia, egiaren ama eta sorburua, aintzat ez hartzea eta bere ahotan jarri dute «Historia da beren krimenak zuritzeko nolabaiteko agintea edo hitza eskuratu dutenen ahalegin narratiboa» esaldia.

Hori guztia gutxi balitz bezala, erantsi dute akusatuak Martin Azpilkueta XVI. mendeko pentsalari eta kanoniko ospetsuaren ideiak desitxuratu dituela esanez erreinuak ez direla erregeentzat eginak, baina bai erregeak erreinuentzat, edo ez dela erreinua erregearena, baina herriarena, eta, natura legez, erregeren boterea herriarena berarena dela, ez erregerena, eta gizartea begiratzeko, gobernatzeko, agintzeko, legeak ezartzeko eta epaitzeko behar den boterea emana zaiola gizaki bakoitzari, gizakien elkarteari zuzenean eta naturalki, bere burua goberna dezan naturazko gaietan, zuzen eta zoriontsu bizitzeko gisan, naturazko adimenaren arabera.

Eta, beraien lekukotzari amaiera emateko, auzitegiaren aurrean jakinarazi dute akusatuak *Doctor Navarrusen* ideien manipulazio makur horiek guztiak baliatu dituela aldarrikatzeko ez direla erregeak edo nazioak subiranoak, baizik eta herritarrak, norbanakoak, *Doctor Navarrusek* defendatzen zuenaren aurkakoa hain justu.

Une horretan kiliki eta buruhandiak abesten hasi dira, haien buru gainean jira-biraka dabilen arrano beltz handi batek

«Navarra shall be the wonder of the world» karranka egiten duen bitartean:

Aberria izan dadin libre,

Jendarteak izan behar du aske!

Aberri askearen alde

Jende libreak jaiki zaitezte!

Zaldikoek oholtzatik jaitsiarazi dituzte erraldoiak, kiliki eta buruhandiak aurretik dituztela, eta Tomás de Torquemada inkisidore nagusia eta sorginen mailua, Espainiako argia, bere herrialdearen salbatzailea eta bere ordenaren ohorea igo da oholtzara, danbor errepiken soinuan, lekukotza ematera, Pierre de Lancre deritzan inkisidorea alboan duela. Torquemadak lehenik eta behin esan du Inkisizioa ez dela sortzen, ez dela desagertzen, baizik eta transformatu egiten dela etengabe. Bere inpartzialtasunaren erakusgarri, gaineratu du akusatuak gutxietsitako Errege-erregina Katolikoek izendatu zutela inkisidore nagusi eta segidan nabarmendu du akusatua, Lurra unibertsoaren erdigunean

dagoela ukatzeaz eta eguzkiaren inguruan biratzen dela esateaz gainera, behin eta berriz saiatu dela alferrik ukatzen Errege-erregina Katolikoek sortutako inperio handian eguzkia inoiz sartzen ez delako egia gezurtaezina.

Jendetzaren zurrumurruen artean, bufoia izateaz gainera judua izatea egotzi dio akusatuari inkisidore nagusiak, eta froga gisa erakutsi du 1492ko abuztuaren 2rako Espainiako juduen atzerriratzea agindu zuen Granadako Ediktua, zeinaren dokumentu erantsi batean akusatuaren izena agertzen baita. Esandakoa biribiltzeko erantsi du ez daukala zalantza izpirik akusatuaren jatorri juduari buruz, badakiela zertaz ari den, besteak beste, berak ere arbaso juduak zituelako eta akusatuak, judua izan ez balitz, ez lituzkeelako idazle juduen hainbeste liburu edukiko ezkutuan gordeta.

Jendetza asaldatuta «Juduen liburuak sutara» oihuka ari dela, Pierre de Lancrek hartu du hitza. Torquemadak egindako akusazioa berretsi du, eta horren froga gisa erakutsi du paper puska bat, akusatuak patrikan gordeta

omen zeukana eta *Jüdiferraren kanta* izeneko abestia eskuz osorik kopiatzeko erabili zuena. Pierre de Lancrek ozenki irakurri du abestiaren zati bat Konstituzio plazan bildutakoen harridurarako.

Ote da mundu honetan deus ere gai

denik

Judu herratuari konpara daitekeenik?

Nik ez dut uste baden nehon

miserablerik

Haren zorteari hurbil daitekeenik...

Judu herratuari buruzko aipamena entzuteaz bat, jendetza aztoratzen hasi da berriro.

Israelgo herrian izan niz deitua,

Jerusaleme famos hirian sortua,

Satisfa bedi beraz zien izpiritua.

Jauna ni nuzie bai judu herratua.

Pierre de Lancrek abestia amaitu duenerako, jendetzaren berbaroa eta egonezina sekulakoak dira. Oihu ozenak eta irainak entzun dira berriro.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

Bufoiaren aurkako akusazioen zerrendari akusazio berriak gehitzeko baliatu du Lancrek abagunea, zeren, judua eta herratua izateaz gainera, sorgina izatea ere leporatu baitio akusatuari. Eta horren froga nagusi gisa aipatu du akusatua euskara deritzan hizkuntza arraro eta ezezagun batean mintzaten dela, eta, Torquemadak bezala, berak ere oso ongi dakiela zertaz ari den, zeren, deabrua, dogmak eta heretikoak ongi ezagutzeaz gainera, batzuetan euskaraz hitz egiten baitzuen nahi gabe intimitatean, bere aitona, Bernard Errostegi baxenafarra baitzen, gero Bordelera bizitzera joan eta bertan euskal abizena aldatu eta Lancre

abizen frantsesa hartu bazuen ere, ezein kristauk ezin zuelako ongi ahoskatu bere abizena. Eta gero sorgin ehiztariak akusatuari leporatu dio masa asaldatzailea izatea, Joana III.a Albretekoak, Biarnoko kontubernio kalbinistaren buruak, aginduta Joanes Leizarraga sasiapaizak euskarara itzultitako *Jesus Krist Gure Jaunaren Testamentu Berria* banatzea kristau zintzoen artean, beren bihotza pozoitzeko, eta aberrigabea izatea ere bai, ez espainiar ez frantses, Espainiaren eta Frantziaren artean hara eta hona alderrai ibiltzea, bizileku finkorik gabe, muga nazionalik ez balego bezala, mugazainei nortasun agiri edo pasaporterik erakutsi gabe, xede bakar batekin: nazioz gaindiko sorgin elkarte bat sortzea, Europako herritarrak nazioen eta estatuen aurka xaxatzea helburu duena, bekatari lohi libertinoen bilera klandestinoak antolatuz, bai Sarako, bai Zugarramurdiko kobetan, non sagardoa, sagarrez, paradisuko fruitu madarikatuz egiten den eta haluzinazioak eragin eta deabruzko mundu berriak ikusarazten dituen edabe arriskutsua edaten, zakilak zurrupatzen eta klitoriak miazkatzen dituzten bitartean,

goraki errepikatzen baitituzte nazioen zein estatuen aurkako arao ulertezinak, Europako iparraldeko lurralde zingiratsu, inhospitoetako eskeko fedegabeekin eta sorginekin egindako kontubernioetan ikasiak.

Bere lekukotzaren amaierarako utzi du, ordea, Pierre de Lancrek bufoiaren aurkako akusazio larriena, sorgin elkartearen eragina Europako errege-erreginen mendeko lurretan zabaltzeaz gainera, Inkisizioaren lana eragoztea leporatu baitio inkisidoreak akusatuari hotsandiz. Donibane Lohizuneko bakailao flotako gizoni beren emazte, ama eta alabak biluzten eta sastakatzen ari zirela esan, eta, haien laguntzarekin, erretzera kondenatutako sorginez betetako konboi bat askatzea egotzi dio, eta, horren ondorioz, Inkisizioaren epaiketak bertan behera geratzearen arduraduna izatea.

Inkisidorearen hitzek sekulako zalaparta sortu dute berriro, eta jendetza «sorgina, sorgina!» eta «sutara, sutara!» oihuka hasi da.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

Sukaldari Gorenak txilina jo du isiltasuna eskatzeko, erlojuari begiratzan dion bitartean. Epaiketa hasi denetik pare bat ordu igaro dira jada. Sukaldari tripazainen mahaikadak bukatu berria du oturuntza. Sabela betean eta erdi lotan daude denak. Jendetzaren aztoramena baretu eta sukaldarien sabelaldea arintzeko ordubeteko etenaldi bat egingo dutela iragarri du Sukaldari Gorenak. Baina plazan bildutakoak erabat sutu dira, eta Sukaldari Gorenari oihuka gogorarazi diote berriro, bufoiak iraintzeko, kolpatzeko eta hiltzeko eskubidea dutela. Akusazioek, berriz, jakinarazi diote lekuko gehiago dituztela oholtzara igotzeko zain akusatuaren aurka beren lekukotza emateko. Egoerak gairiditurik, matxinada arriskua ekiditeko, Sukaldari Gorenak iragarri du pintxo-potea doan izango dela denentzat ordubetez Aldez Zaharreko Pintxoaren Urrezko

Milian. Konstituzio plazako gotorlekuaren ate altxagarria jaitsi orduko, jendetza Konstituzio plazatik irten eta Alde Zaharreko tabernetan barreiatu da bozkarioz beterik Sukaldari Gorena goratzen duten bitartean.

II

Etenaldiaren ondoren, atzerapenak saihestu eta epaiketa arinago egite aldera, akusatuaren aurkako kargu nagusiak aurkezteko eskatu die Sukaldari Gorenak akusazioei.

Ahulguztidunaren eskaerari jarraiki, mapa batzuk igotzeko eskatu dute akusazioek. Lehenik Euskal Herriko mapa erraldoi bat igo dute xingola zuri-gorri-berdeak soinean daramatzaten zaldiko-maldiko batzuek oholtzara. Akusazioaren eledunak eskola irakasleek arbelean azalpenak emateko erabiltzen dituzten erregela txiki batez mapa seinalatuz esan du akusatuak ez duela Euskal Herriaren milaka urteko izatea aintzat hartu inoiz, ez eta bere lurraldetasuna ere, eta horren erakusgarri, «ez dago Euskal Herririk, Euskal Herriak baizik» esatea leporatu dio.

Gero kementsu gaineratu du akusatuak inoiz ez dituela aintzat hartu ez euskal nazioa, ez nazio forala, aldebakartasunaren edo aldebikotasunaren ordeztaldeaniztasuna aldarrikatuz, burujabetza nazional oso nahiz partekatuak lortzeko bideak beti bezperako koplak direla argudiatuz eta, jendetza «Gora Euskadi askatuta!» aldarrika ari dela, gogora ekarri du akusatuak aberriaren alde bizia eman, burkideekin borrokan engaiatu edo Euskal Herriaren alde probetxuzko zerbait egin ordezt, nahiago izan duela epelkerian eta alferkerian ibili, irri eta zirri edonorekin, hitz joko maleziatsuak eginez edo orri zuriak ziri bertsoz zirriborrotzen denbora-pasa, eztarria absentaz bustita, literaturak gogoan su egin dion kultureta baten itxurak eginez, euskal literatura soilik euskaraz idatzitako literatura ez dela, baizik eta Euskal Herriko gainerako hizkuntzetan idatzitakoa ere badela aitortu zueneko hartan bezala.

Horrez gainera, suharki leporatu dio Orreagako guduaren mitoa ukatzea, Aberri Egunean etxeko balkoian ikurriña ez jartzea, Ikastolako haurrei Gartxotek Mikelot ez zuela hil behar esatea eta Bernard Goienetxe Matalaz Xiberuko

apaizaz trufatzea, ezein Aberriren alde bizia emateak eta kentzeak ez duela merezi eta «egiazko euskaldünak» nor demontre diren jakiteko modurik ez dagoela esanez.

Baina akusazio larriena ondoren etorri da, Euskal Herri batu bat eta bakarra eraiki nahi ez izatea leporatu baitio, nazio eraikuntzaren eta euskal estatuaren aurka egotea, estatu berriak eraiki ordez lehendik daudenak eraitsi behar direla esatea, mundu guztiaren ageri-agerian behin eta berriz modu lotsaemangarrian ukatzea Euskal Herria superpotentzia emozional bat dela, eta, horrenbestez, etsaiarekin elkarlanean jardunez euskal aberriaren traidore eta etxekalte totala izatea. Une horretan jendetza asaldatu egin da akusazio gogorak entzutean, eta «bufoiak ere txakurrak zarete» garrasika hasi da.

Jende masaren oihu lazgarriek Konstituzio plazako gotorlekuko horma gotorretan durundi egiten dutela, akusazioak traizioaren gaian sakondu du. Nabarmendu du akusatuak berak aitortu duela aberriari traizio egin diola eta behin eta berriz errepikatu duela jendaurrean eta inongo

lotsarik gabe naziokidetasunaren aurretik giza solidaritatea dagoela, berak gauza gehiago partekatzen dituela esaterako bavariar europazale batekin euskaldun antieuropar batekin baino, bai eta “Gu” nor garen zalantzan jarri ere, argudiatuz “Gu” ez garela gure jatorriaren, hizkuntzaren eta kulturaren arabera eratutako Herria, edota zernahi erabaki bidegabe, heriotza zigorra barne, har dezakeen jende edo jendaila, guk geuk geure buruari emandako lege legitimoekiko adostasunak elkarri lotzen dituen eta lege legitimo horien arabera erabakiak hartzen dituzten herritarrak baizik. Orduan «txakurra» ez ezik «gaskoia», «makettoa» eta «kosmopaletoa» garrasika hasi zaizkio akusatuari plazan batutakoak, «Gu gira Euskadiko gaztedi berria, Euskadi bakarra da, gure aberria» abesten duten bitartean.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

Zalaparta baretu denean, pika luzeak, mosketoiak, arkabuzak eta Flandriako Tertzioen arropak soinean daramatzaten soldadu batzuek Europako mapa erraldoi bat igo dute oholtzara. Akusazioaren eledunak, Europako mapa erregelaz seinalatuz, bufoiari leporatu dio Felipe II.a Hispaniar Monarkiako eta garaiko europar potentzia handieneko erregeari Inkisizioaren amaiera eta erlijio askatasuna eskatzeko Bredako Konpromisoa aurkeztu zioten Herbeheretako matxinoen jarrera bera izatea. Horretaz gainera, esan du akusatuak Westfaliako itunean ezarritako subiranotasun nazionalaren eta estatuen lurralde osotasunaren printzipioak behin eta berriz urratu dituela nazio-estaturez gaindiko herritar askeen Europako Errepublika baten aldeko aldarriak eginez.

Jendetzak suhartasun patriotikoaz gainezka akusatuari zuzendutako gaitzespen oihuen artean, xingola gorri-horiak eta urdin-zuri-gorriak dituzten zaldiko maldiko batzuek Espainiako eta Frantziako mapa bana igo dituzte.

Akusazioaren eledunak, mapak seinalatuz, erantsi du iragan loriatsu eta orbanik gabeko bi nazio-estatu horien aurkako adierazpen iraingarriak egin dituela etengabe akusatuak eta, horren erakusgarri, zerrenda luze bat patrikatik atera eta akusazioak egindako laidoak banan-banan irakurri ditu: Covadonga, Santiago eta Errekonkista egiazko kondaira nazionalak direla eta Espainia patuaren batasuna unibertsalean dela ukatzea, Frantzia bost kontinentetan dagoelako unibertsala dela diotenez eta Clovis, Poitiers eta Carlos Martelen kondairez trufatzea, bi aberri horiek bat eta bakarrak ez direla aldarrikatzea, gaztelania eta frantsesa desagertzeko bidean jartzea hizkuntza aniztasuna aldarrikatzeagatik eta hizkuntza gutxituak desagertzeko arriskuan daudela esateagatik, Espainiako eta Frantziako sinbolo nazionalak iraintzea, Espainiak Amerika zibilizatu ez baizik eta konkistatu egin zuela esatea urriaren 12an eta Donostiako Intxaurrendoko kuartelean Espainiako banderen zinaren ekitaldi militarretan ez parte-hartzea bertan makina bat euskal herritar torturatu zituztelako aitzakia iraingarria jarrita, eta uztailaren 14an

Parisko Bastillaren hartze loriatsuaren urteurrena ospatzeko antolatuko desfile militarrean Frantziako banderari ez muin ematea frantziar Grandeur-ak zapaldu omen dituen guztien omenez.

Akusazioaren eleduna, zerrenda luzea irakurri ondoren, arnasari buelta eman ezinik dabilen bitartean, «Viva España, Viva el Rey, Viva el Orden y la Ley» eta «Allons enfants de la Patrie, Le jour de gloire est arrivé!» ozen abesten hasi da Konstituzio Plazan bildutako jendetza.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

Akusazioaren eledunak akusazioen zerrenda laburbiltzeko hotsandiz esan du akusatuak, jendaila albarazalea Estatuen gainetik jarriz eta xaxatuz, Espainiako eta Frantziako legeen aurkako albaramendua, sedizioa bultzatu duela.

«Eta aurretik aipatutakoagatik guztiagatik», gehitu du akusazioen eledunak akusazio guztiek batera adostutako ondorioak ahal duen moduan irakurriz, jendetzak akusatuari «terrorista, terrorista» deitzen dion bitartean, «kontuan hartuz akusatuak galbidera eta hondamendira eramanez nahi izan dituela nazio-estatuak, gizateriaren aurkako krimen deitu diela, bortxaz eta mugak ezarriz komunitate naturalak desegin eta komunitate horien hizkuntzak eta kulturak suntsitu dituztelakoan, baina batez ere eta oroz gain, aberriari traizio egin diola Historiaren areketan lurperatutako aberriaren etsaien izena eta izana ahazmenetik ateratzen ahaleginduz, benetan inporta duena herritarren bizi-baldintzak eta borondatea direla, eta, horrenbestez, aberriak ez baizik eta herritarrak direla egiaz subiranoak nabarmenduz, aho batez eskatzen dugu akusatuarentzat, bere desobedientzia errebelde, sistematikoa eta jakitunarengatik, heriotza zigorra».

Sukaldari Gorenak akusatuari galdetu dio ea akusazioa onartzen eta errua aitortzen duen. Jendetzak eta akusazioek protesta egin dute arau prozesal inkisitorialek

akusatuaren errugabetasun presuntzioa ez dutela onartzen, eta, hortaz, hitza hartzeko eskubiderik ez diotela aitortzen argudiatuz. Baina Ahalguztidunak erantzun die arau prozesal inkisitorialen arabera zilegi dela akusatuari hitza ematea baldin eta soilik baldin bere burua erruduntzat jotzeko erabiltzen badu eskubide hori, eta, horrenbestez, hitza eman dio akusatuari.

Zaldiko maldikoek mozala kendu diotenean, txano txintxarriduna kriskitinka, bufoia Ahalguztidunarengana zuzendu da lehenengo, «Ave Caesar, morituri te salutant» diosala eginez, eta gero Konstituzio plazan batutako jendetzarengana hotsandiz:

–Zuek, herri xehea, gogor lan egiteaz nazkatuta zaudetenak, zatozte errudun, traidore edo petxero honengana eta entzun infernuko sugarretan kiskali aurretik esango dizuedana.

Heriozko isiltasuna egin da Konstituzio plazan. Jendetza arretaz begira duela hizketan hasi da bufoia. Bere hitzek plazako lau fatxadetan burrunba egin dute:

–Nire herritar maiteak, berdin abertzale, patriotero zein xobinistak, zuen nazioak fikzioak dira, gure nazioak haluzinazioak. Ez ote gara, honezkero, nahikoa nahigabe nozituak geure gezurrezko nazioen erruz? Ez ote genuke hobe, geure hobeharrez, nazioetatik harago joatea behingoz? Noiz arte jarraitu behar dugu, bestela, elkarri harrika, sufrimenduaren gurpilari tiraka, oinaze zaldiaren tornuari jiraka? Geure nazioen erruz, baina batez ere geure ezjakintasunaren erruz, eskarmentuaren arrastoak gorritz tatuatu dizkigute belaunez belaun gure arima-gorputzetan. Alta, benetako borondaterik balego, ederki bizi gintezke gure komunitate naturaletan, gure eguneroko zereginak, jarduerak, harremanak eta eztabaidak, hitz batean, bizitza elkarrekin eginez, partekatuz eta horrela ezarian-ezarian gure artean lotura politiko bat sortuz, elkarri identitate komun bat aitortuz, komunitate imajinatuen, asmatuen, hots, nazioen gauzatzea baino ez den nazio-estaturik gabe. Noiz ireki behar ditugu begiak eta behingoz konturatu estatu arrazoia, nazio-estatuaren benetako arrazoia, giza arrazoiaren, autonomiaren eta askatasunaren aurkakoa

dela, arrazoi totalitario bilakatzen dela bai mundu honetako erresumetan, bai etorriko diren erresumetan? Erresumin, sumindura eta ergelkeriatik aldendu gabe, giza ergeltasuna lurraren gainaldetik ezabatzen ez den bitartean, ez dugu itxaropenik berreskuratuko».

Jendetza suminak itsututa bufoiari garagardo botila hutsak jaurtitzen eta «No future for the fool» garrasika hasi da histeria kolektiboan.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

Egoerak okerrera egin eta garagardo lataren batek ezpainean jo baino lehen, Sukaldari Gorena eta bere segizioa balkoitik erretiratu eta hartu beharreko epaia eztabaidatzera joan dira Gaztelubide elkarteko gogoeta lekura.

Epaia eman bitartean, jendetza baretuta edukitzeko, Espainiako eta Frantziako banderen eta ikurriñaren koloreekin egindako soinekoak daramatzaten *cheerleader* batzuk dantzan aritu dira. Animatzaileen ikuskizuna bukatu denean, oinaze-zaldia ekarri dute Konstituzio plazara eta bertako oholtzako zurezko zoru etikoaren gainean jarri dute akusatua torturaren bidez herriaren aurrean bere erruduntasuna aitortzera behartzeko. Akusatua torturatzen hasi baino lehen teknikari batzuek bereizmen handiko pantaila bat jarri dute oholtzan, herri xeheak xehetasun guztiekin jarrai dezan tortura saioa.

Ikuskizun odoltsu paregabeaz gozatzeko aukera izan dute ikus-entzuleek, akusatua gogotik torturatu baitute oinaze-zaldian lehenik, historia zirkularraren gurpilean ondoren. Haluzinazioak izan arte birrindu dizkiote gorputz-adarrak, hezurak eta giltzadurak. Zaldiko-maldiko batek bere erruduntasuna aitortzen duen galdetu dionean, lehenik eta behin torturak salatu nahi dituela esan du akusatuak. Orduan Inkisizioaren forentseari deitu diote. Forentseak akusatuaren gorpu jipoitua arretaz aztertu ondoren esan du

tortura zantzurik ez dagoela, eta, beraz, tortura salaketa faltsua dela, zeina auziperatu guztiek epaiketa oztopatzeko edo atzeratzeko erabili ohi duten trikimailu juridikoa baita, adituak luze eta zabal azaldu duenez. Forentsearekin batera etorri den beste adituak, psikologoak, erantsi du akusatuak nahasmendu bipolar larria, haluzinazioak eta pertsekuzio delirioak dituela.

Zalantza guztiak argituta, mahai gainean zeuden argudio guztiak ongi hausnartu eta digeritu ondoren, Sukaldari Gorena agertu da balkoian segizioa atzetik duela. Gertakizun historikoari hasiera emateko, Matxinaden Auzitegiko idazkariak paper kiribildu zahar batean idatzitakoa irakurri du plazan bildutakoei begira.

Haeretici frexentur templa

boni nihil fecerunt contra;

ergo debent omnes patibulari

Idazkariak irakurtzen amaitu duenean, Konstituzio plazako jendetza *Burdinazko sukaldariari* goraka eta deika hasi da. Herriaren deiari erantzunez, Epaile Handiak urrats batzuk aurrera egin eta, mikrofonoen eta flashen itsugarrien aurrean sendo, aurpegia serio, gertaera handiek eskatzen duten bezala, hotsandiz epaia eman du:

–Akusatua kondenatu behar dugu eta kondenatzen dugu infernuko betiereko suak erreta hiltzera.

Mila aurpegi dituen borrero bat igo da oholtzara, jendetzak «heretikoak sutara!» oihukatzen duen bitartean.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

Kide batzuen laguntzarekin enbor luze bat jarri du oholtzaren erdian zutik. Gero egur mordoxka bat enborraren inguruan, eta akusatua oinak enbor aurrean eta besoak atzean lotuta. Borreroak balkoira begiratu du.

Akusatuak ere bai odolezko izerdi hotz batek hartuta.
Gaztelubideko danborjoleek danbor errepika bat jo dute.
Donostiako Orfeoiko kideak abesten hasi dira berriro.

*Rex tremendæ maiestatis,
qui salvandos salvas gratis,
salva me, fons pietatis.*

Sukaldari Gorenak buruaz baiezkoa egin du, eta borreroak
su eman dio egur pilari. Hil ezkilak joka, bufoiak abesteari
ekin dio:

Entzun Beaumont
Entzun Agaramont
Haltzak ez dü bihotzik,
Ez gaztanberak hezürrik.

Ez nūan uste erraiten ziela
aitunen semek gezurrik.

III

Bizia salbatzeko fortunaren jainkosaren laguntza baino zerbait gehiago beharko duela pentsatu du bufoiak estutasunez Konstituzio plazan bildutako jendetzaren barre algaren artean. Haragi-errearen usaina usaindu du, oinak sutan dituela konturatu da. Sugarretan kiskaltzen ari dela, garun zulatuena, gorpu jipoituen edo gorputz atal ubelduen irudiak trumilka datozkiola, ahots bat entzun du. Hasieran haluzinazioak direla pentsatu du, baina gero sugarrek sortutako ke laino artean emakume baten itzala ikusi uste izan du. Laster antzeman dio ez dela fortunaren jainkosa. Soineko iluna eta betaurrekoak daramatza, eta zigarreta bat du ahoan. Bufoia, inguratzen duen ke lainoari begi izularrituez begira, hizketan hasi zaio itzalari:

–Ikusten duzunez, ataka gaiztoan nago.

–Bai, plaza honetan zure aurretik hiltzera kondenatu edo jazarri dituzten gizaki guztiak egon diren bezala. Gorpil zoro

infernutar berean gaude itzulika atera gabe. Itzuli dira jende saldoen deiadarrak esku gogorraren eske. Itzuli dira bermerik gabeko epaiketak eta epaiak. Itzuli dira baztertuen, kanpotarren edo desberdin pentsatzen dutenen ghettoak eta gulagak. Haien patu bera egokitu zaizu. Haien oroimena erre eta desagerrarazi nahi dute zurekin batera, baina ez kezkatu, zuri laguntzera etorri naiz.

–Niri laguntzera? –Bekainak goratu ditu bufoiak.

–Bai, zuri, zure aurretik hil dituztenei eta plaza honetan bertan etorkizunean hilko dituztenei, baldin eta iraganetik ziztu bizian jiraka gainera datorkigun historiaren gurpil zoro odoltsuak, zeinak etorkizuna geure kabuz erabakitzeko aukera ukatzen baitigu gizakioi, azpian harrapa gaitzan eragozteko zeozer egiten ez badugu –erantzun dio emakumearen itzalak zorrotz–. Horregatik ekin nion gure mundua erraustu duen ideologia totalitarioa eta bere iturburuak aztertzeari. Ulertu egin nahi dut, ulertu egin behar dut, hemen zer gertatu den. Nik ere, zuk bezala, eskubideen urraketak, kartzela eta jazarpina jasan nituen.

–Nor zaitugu? –galdetu dio bufoiak harriduraz–. Gizakia al zara?

–Jada ez naiz, baina izan nintzen. Hamalau urtez aberrigabea. Orain itzala dugu aberri, non sakon ahultzean aringarritzat dugun gauaren altzo iluna.

Emakumearen itzala hizketan ari den bitartean, bufoia zer gertatzen ari zaion ulertzen ahalegindu da. Berriz pentsatu du haluzinazioak dituela, baina oin-zangoetan sentitzen duen mina haluzinazio bat izateko benetakoegia dela ondorioztatu du. Hankak guztiz kiskali zaizkio eta izu-ikarak hartu du pentsatu duenean laster gorputz guztia kiskalita izango duela.

Bufoia lasaitzen saiatu da itzala:

–Sistema totalitarioak beldurraz baliatzen dira gizabanakoa hertsatzeko eta estutzeko. Beldurrak paralizatuta, isolatuta, bakartuta, errealitatea eta fikzioa, egia eta gezurra bereizteko gai ez den jendea da totalitarismoaren subjektu ideala, eta gizabanako autonomoa da bere arerio nagusia. Horregatik da arriskutsua pentsatzea, baina ez pentsatzea are arriskutsuagoa da. Beraz, izan adorea, ez beldurtu, ez

atzera egin beldurrak arima-barrenak jaten dizkizun une hauetan ni izango nauzu bidaide askatasunerako bide luze bihurgunetsuan.

«Erraza da adoretsua eta ausarta izateko eskatzea, batez ere norbera ez, baizik eta lagun hurkoa denean sugarretan kiskaltzen ari dena», pentsatu du bufoiak bere hanka kiskaliei erreparatzen dien bitartean.

–Ez kezkatu –esan dio emakumearen itzalak lasaitasunez–, gizaki bat hiltzen den bakoitzean, beste bat jaio eta mundu berri bat sortzen da hasieratik, zeina naturaren eta historiaren legeetatik, eta, horrenbestez, terrorearen atzaparretatik aske baitago. Erabateko terrorea da sistema totalitarioaren funtsa, naturaren eta historiaren indarrek gizakiaren jaiotza eragozteko edo gizakia desagerrarazteko darabilten baliabidea, zeren ikuspegi totalitariotik gizakien jaiotza eta heriotza naturaren eta historiaren indar handiagoko mugimenduak eragozteko ahalegin amorragarri bat baino ez baitira. Horregatik terroreak gizakien aniztasuna deuseztatu eta gizaki bakarra sortzen du, indibidualtasunik eta pentsatzeko gaitasunik gabea, masa,

jendetza, artaldea, zure aurrean garrasika duzun hori bezalakoa, naturaren edo historiaren parte izango balitz bezala. Naturak “bizitzeko desegokiak direlakoan edo Historiak “hiltzen ari diren klaseak” direlakoan hiltzera kondenatu dituzten gizabanakoen heriotza zigorrak exekutatzen ditu terroreak.

Konstituzio plazako harrabotsa dela-eta bere hizketaldia une batez eten behar izan badu ere, itzalak azalpenak ematen jarraitu du, jendetzak bufoiari egindako biraoei eta oihuei erreparatu gabe.

–Etengabe aldatzen ari den ezin ulertuzko mundu batean jendetza puntu batera iritsi da, non, aldi berean, dena eta deus ez sinetsi duen. Eta horrek sorrarazten dion axolagabekeria dela-eta jendetza, masa ezin da integratu interes komunak defendatzen dituen ezein erakunde, alderdi edo sindikatutan. Herrialde guztietan daude, eta politika axola ez zaien, alderdi bateko kide inoiz egiten ez diren edo botoa ematera ia inoiz joaten ez diren jende mordoan artean gehiengoa osatzen dute. Axolagabekeria horrek egiten ditu, hain zuzen, zure heriotzaren konplize.

Zuri bufoia zarelako barre egiten dizute, baina egiaz beraiek dira Historiaren bufoiak, Historiak engainatu ditu – esan du emakumearen itzalak ozen, plazako jendetzari begirada erronka jotzailea eginez.

Itzalaren hitzak entzun orduko bere aurka garrasika eta uluka hasi da jendetza.

–Bufoi eta axolagabe deitu dion judu nazkagarri horrek herriari? Gu abertzaleak gaitun.

–Ez nuke nahi, ez dagokit niri zuek epaitzea. Ni itzal bat besterik ez naiz. Baina argi emango dizuet nire iritzia. Zuek ez zarete abertzaleak, ezpada gaizkiaren hutsalkeriak mendean hartu dituen gaizkileak, herria hainbeste aipatu eta maitatu beharrez bizi osoan hari losintxa egitera behartuak sentitzen zareten lausengariak. Pentsatzeari uko egin diozue zuen baitako barne kontraesanak saihesteko. Horregatik ez dizue kontzientziak ausiki egiten zernahi izugarrikeria esan edo egiten duzuela ere.

–Bada, itzala bahaiz ere, entzun beharko dun horratik gure epaia. Herriaren, nazioaren etsaiek izen bakarra ditek: traidoreak. Hik Gursetik ihes egitea lortu huen, Hannah

Arendt, baina hire aldamenean dagoen bufoi nazkagarri horrek ez zion ihes egingo Heriori. Heriotza bufoiari eta juduari. Heriotza traidoreei.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

–Hannah Arendt zara? Badut zure entzutea –esan dio bufoiak itzalari, jendetza garagardo botila hutsak jaurtitzen ari zaizkien bitartean.

–Lehen esan dizudanez, ni izango nauzu bide-erakusle eta maisu –erantzun dio Arendten itzalak–. Badakit zer gertatu zaizun. Agintean dauden edo indarra erabiltzen duten erakundeek legitimitatea galtzen dutenean, herritarren eguneroko jokabidea arautzeko, baldintzatzeko boterea galtzen dute. Horixe gertatu zaie zurekin. Ezin izan dute zure jokabidea, zure pentsamoldea bideratu, ezin izan zaituzte arrastoan sartu. Eta orduan zer egiten dute erakunde horiek, botere galera horri erantzuteko?

Indarkeria erabiltzen dute. Baina indarkeria boterearen adierazle izan ordez, botere galeraren ondorioa da. Eta kasu honetan agintariak Konstituzio plazako jendetza indarkeria erabiltzera xaxatu dute nazio bat eta bakarraren ideia jendetzaren bihotz-buruetan sartuta. Gure pentsamoldean nazio-estatuaren ideia iltzez eta giltzez finkatuta daukagun bitartean, nazionalitate zehatz batek ordezkatu du estatua eta estatuak nazionalitate zehatz bat. Horrek esan nahi du beti egongo direla gutxiengoak eta baztertuak, nazio-estatuaren kontzeptu nagusitik kanpo egongo diren etsaiak. Ez dute eskubide osorik izango, kanpokoak izango dira, edo herrialdetik eta taldetik kanporatuak, zu bezala heriotzara zigortuak.

Eta bufoiak pentsatu du Arendtek esan diona zuzena dela, kontua ez dela besteak gure kulturaren integratzea, ezpada, besteak "gure" edo "hemengo" ohituretara moldatzeko eskakizunetik harago joanez, kulturaren ikuspegitik askotarikoa den gizarte multietniko bat eratzea, nazioz gaindiko komunitate bat sortzea. «Soilik besteak aitortuz izan gaitzke geu, haiek ere gudan badaudela onartuz.

Soilik horrela lor daiteke erabateko inklusioa, desberdinen arteko elkarbizitza hemen eta munduan. Horregatik da xede hori lortzeko bidean ezinbesteko lehen urratsa aniztasunean bat eginik egongo den Europa berri bat sortzea», pentsatu du bufoiak Arendten itzalak ahoskatutako hitzek adoretuta.

Gogoetan murgilduta jarraitu du suari ez erreparatzearren, baina sugarrak gero eta handiagoak dira, guztiz kiskali diote gorputz-enborra, eta jendetza gero eta asalduagoa dago, sugarren distira begi ordituetan, «heriotza, heriotza bufoi gogo bilauari» garrasika.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute

etenik

Oinazez beterik bufoiak pentsatu du nahiago lukeela dena haluzinazio bat, amesgaizto bat izan balitz baina borreroa ikusi du hauspo handi bat gogotik astintzen sua biziagotzeko. Erre usaina hedatu da plazan. Bufoia, suzko bola bihurtuta, keagatik eztulka, intzirika eta oihuka ari da. Azkenetan da. Arendten espektroa du lagun bakar aldamenean:

–Lasai, geure buruarekiko, geure baitako bestearekiko elkarrizketari, harekin eztabaidatzeko ahalmenari eusten diogun bitartean ez gara galduak, ez gara bakartuak errealitatetik. Hemen naukazu aldamenean, zuri laguntzeko prest, besteekin egiten baikara norbanako, nork bere bereizgarri, askatasun eta sormenerako gaitasun berekiak galdu gabe.

Bufoiari, herio suharrean, bihotza altxatu diote Arendten hitzek, eta geratzen zaizkion indar urriak bildu, esku kiskaliak su metako enborrera lotzen dizkion sokatik askatu, eta, azken hatsa eman baino lehen, Konstituzio plazan bildutakoengana bihurtuta, hau esan die: «Jakintsu itsu batek aspaldi esan zuenez, hau dagoeneko gertatu da eta

berriz ere gertatuko da. Ez dut atsegin bufoia izatea baina
are gutxiago zuen larruan egotea. Gaur nire bizia epaituz
zuen patu iluna erabaki duzue».

Hitzok ahoskatu ondoren abesten hasi da:

Anai-arrebok, ez, otoi, pentsa
neu're gustora nagonik,
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik.
Zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat ez nik,
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet orainik.

Eta bufoiak bertsoa abesten amaitu orduko, sekulako
zalaparta eta iskanbila sortu da.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,
Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

III

Epaiketa bukatu da, baina festak aurrera darrai. Bizikidetzaren Auzitegiko idazkariaren aginduz gotorlekuko zaindarien Konstituzio plazako ate altxagarria igo, eta zaldiko maldikoen laguntzarekin ahal duten bezala kanporatu dute jendetza plazatik. Gutxi batzuek gotorlekuko harresien aurrean bufoiaren aurka oihuka jarraitu badute ere, azkenean inguruko kale eta tabernetan sakabanatu dira.

Plazako zorua plastikozko edalontziz, janari lasterraren bilgailuz eta botila hutsez beteta utzi dute ikus-entzuleek. Oholtza gainean errautsak daude alde guztietan barreiatuta. Epaiketa zuzenean eman duen telebista kateko langileak epaiketaz ari dira solasean, bizkarra kamioiaren kontra bermatuta, tresneria jasotzen hasteko gogorik gabe.

–Espektakulu izugarria izan duk.

–Bai, arrazoi duk. Baina irudipena diat ez ote dudan beste norbaiten ahotan entzun bufoiak epaiketa bukatu baino lehen abestu duen bertsoa.

–Normala duk. Ez al zian gizon ospetsu batek esan: «Historia edo istorioak errepikatu egiten dira, lehenbizi tragedia gisa, hurrena fartsa gisa?» Nolanahi ere den, sekulako agur bertsoa bota dik bufoi zirtolari erkin, muker oker horrek.

–Eta jendetzaren txistu hotsa?

–Bertsolari txapelketako finalean entzuten diren txalo hotsen parekoa. Ez sinestekoa.

–Bada, Konstituzio plazako epaiketa inkisitorialean BECeko adorazio guneko txaloak txistu bihurtu badira ere, gaurko saioak audientzia neurgailuak txikituko ditik.

–Zertan ari zarete alfer halakoak? Amaitu dituk epaiketak eta berriketak. Hasi tresneria biltzen berehala. Ordubete barru telebistaren egoitzan entregatu behar diagu material guztia –esan die morroi bizardun batek langileei. Gizon gorbatadun batekin batera etorri da nagusia.

Langileek pantaila erraldoia eta agertokia desmuntatu eta oholtzatik jaitsi dituzte kamera, kable, soka, oihal, eta mikrofonoekin batera.

–Tira, mugi, dekoratua ere eraman behar diagu eta –erantsi du bizardunak.

Une horretan kamioi atoidun batzuk sartu dira plazan. Langileak gogotik aritu dira lanean Konstituzioaren plazako gotorlekuaren kartoi-harrizko harresi eta almena lodiak desmuntatzen eta gainerako tresneriarekin batera kamioietan kargatzen.

Langileek zamalanak bukatu dituztenean, gorbatadunak gabardinatik botilatxo bat atera eta trago bat eskaini dio bizardunari.

–Xanpaina? Zer dugu ba ospatzeko? –galdetu dio bizardunak botilatik tragoa egin ondoren.

–Agian soldata igoeraren bat izango duala aurki. Sekulako audientzia lortu diagu.

Telefono mugikorra eskuratu dio bizardunari.

–Azken Judizioa saioak % 25eko sharea lortu du –irakurri du bizardunak mugikorrean–. Ez da giro! Albistegietakoei aurrea hartuko diegu.

–Bai! Aspaldi esan nieran zuzendaritzakoei emanaldia emateko une egokiena afalordua dela, familia osoa telebistaren inguruan bilduta dagoenean, begiak pantailan iltzatuta, hipnotizatuta, elkarri zer esatekorik ez dutela – esan du harro gorbatadunak–. Kosta zaiek horretaz jabetzea, baina azkenean ulertu ditek: espektakulua duk XXI. mendeko supazterra.

–Denboraldi osoan horrelako arrakasta izaten badugu, telebista kateko zuzendaritza karguren bat emango dizute ziur.

–Ez duk lan erraza izango –pentsakor geratu da gorbataduna–.

–Eta zuri bururatu zaizu bortxazko ikuskizun hori Konstituzio plazan kokatzeko ideia bikaina?

Baiezkoa egin du gorbatadunak.

–Domina bat merezi duzu horregatik bakarrik. Bortxazko giro hori hain sinesgarria egiteagatik.

–Tira, ez duk hainbesterako ere. Gainera, Konstituzio plaza ez duk inoiz bakezko leku bat izan. Alde horretatik, Monteriggioniko gotorleku gatazkatsuaren antz handiagoa dik. Ala hik ere irentsi duk Txomin Agirrereren ikasle abantailatu batzuek sinetsarazi nahi diguten Arkadia Zoriontsuan ipuin hori, zera, txikiteroak Konstituzio plazako tabernetan tragoak hartzen aniztasunaren ohoretan, haur irribarretsuak arkupeetan jolasean, bezero alaiak harategian eta arrandegian erosketak egiten, irakurleak, egunkariak esku artean dituztela terrazetan, liburuak patxadaz gainbegiratzen liburu dendan, non eta liburu dendan...

Burua ezker-eskuin mugitu du hizketan jarraitu baino lehen.

–Oroimenik gabe ez gaituk ezer, baina zeinen azkar galtzen diagun. Azkar ahaztu diagu garai bateko Konstituzio plaza indarkeriazko ekintzen, erasoen, jipoien, mehatxuen, atxiloketen eta liburu denden erreketen gertalekua izan zela. Gezurra zirudik, hain urte gutxi igaro dituk, baina egia duk.

–Tira, ez dakit ez ote den hobe garai haiek ahaztea iraganean aztarrika aritzea baino.

–Bai, arrazoi duk. Gainera, zainak ematen zidak gure saioaren arrakastaren gakoetako bat hori dela, jendea benetan gertatu diren eta gertatzen ari diren izugarrikeriak ahazten laguntzen diola –esan du barrezka gorbatadunak–.

Ea zer dioten sare sozialek emanaldiari buruz.

Sakelako telefonoari erreparatu dio solaskideak.

–Saioa amaitu berria bada ere, jada aurkitu dut iruzkin bat –esan du iruzkina irakurtzen hasi aurretik–. Ikuskizunak ongi eutsi dio tentsioari eta amaiera indartsu, iradokigarri eta erakargarriarekin iritsi da bere gorenera.

Algara egin dute pozik.

Baina hurrengo iritziak ez die horrenbesteko graziarik egin.

–Epaiketako bufoiak abestu dituen bertsoak plagiatuak dira

–irakurri du solaskideak.

–Bertso pare bat. Sakrilegio galanta! –esan du gorbatadunak eskuak burura eramanez– Nork idatzi dik mezua?

–Anonimoa da.

–Hala ere lepoa jokatuko nitek iruzkingilea Sorkuntza Sortzez Garbiaren Kofradiakoa dela –erantzun dio gorbatadunak haserre–. Sorkuntza zikina duk, sorkuntzak arrastoak uzten dizkik nonahi.

–Mezuan ez da kofradia horren aipamenik agertzen.

–Berdion zio. Modu batean edo bestean atzetik ditiagu egun osoa matraka emanaz, hau plagiatu dugula, bestea kopiatu dugula... Besteren begian edozein samar ikusteko gai dituk. Ez, ordea, norbere begiko ezpala. Irakurri behar hituzke kofradia horretako kideen sormen lanak. Erdi Aroko fraide kopiatzaileak baino okerragoak dituk. Ea irakur hezak beste iritziren bat nire zainetako odola irakiten hasi baino lehen.

–Gidoigileak erabat huts egin du ikuskizuna girotu eta kokatzerakoan. Historiaren espazioa ez da ongi ageri. Tokia ez da ongi aukeratu. Donostiako Alde Zaharreko Konstituzio plaza ez da leku egokiena gisa horretako saio bat egiteko, eta pertsonaia ez da denbora jakin batean kronologikoki ageri. Horretaz gainera, epaiketa luzeegia, sinesgarritasunik gabea eta aspergarria izan da. Irizpide

juridikoei behar baino garrantzia gehiago eman zaie eta oholtzan erabilitako tortura tresnak eta metodoak ezagunegiak eta bigunegiak izan dira.

–Ez dugula asmatu ikuskizuna girotzerakoan? Baina zer ari duk esaten morroi hori? –esan du gorbatadunak harri eta zur–. Toscanako Monteriggioniko harresiak Konstituzio plazan altxatzea gutxi iruditzen zaiok? A ze exigentziak. Baina hauek zer uste ditek hau *Game of Thrones* dela eta Amerikan gaudela?

–Tira, Gaztelugatxe harri ukaldi batera daukagu.

–Oroz gain, odola nahi ditek hauek.

–Hortaz, hurrengo saiorako tortura metodo ikusgarriagoren batean pentsatu beharko dugu. Betiere, plagiorik egin gabe.

–Geratzen ote duk ba tortura molde berririk asmatzeko? Ez duk erraza izango jendilaje honen odol egarria asetzea. Ez ote ditek ezer hoberik egiteko, ikuskizuneko xehetasun eta odol arrasto guztiei erreparatzen egotea baino? Ez ote ditek beren etxezuloan teleamaraunari itsatsita egotea eta holako kritikak idazten egotea beste zereginik? Nik zer zekiat ba, kanpora irten, paseatu, lagunartean ibili, bazterrak ikusi,

larrua jo, hitz batean egiazko bizitza bizi –esan du ozpinduta gorbatadunak–. Baina ez, odola, odola behar ditek. Gero gizarte bakezale batean bizi garela esango ditek.

–Gizarte bakezale batean diozu? Hemen nonahi dago bortxa, etxeko atarian, eskolan, lagunartean, lantegian, komisaldegian, burkideen artean...

–Arrazoi duk. Batzuetan iruditzen zaidak bizitza zirku odoltsu bat dela, eta nahikoa ikuskizun erdiragarri baditugula, gu gehiago asmatzen ibiltzeko.

–The show must go on.

–Bai, arrazoi duk, bestela gureak egin dik –Xanpain trago bat egin eta barre egin du gorbadatunak–. Beraz, asma ditzagun espektakulu odoltsuak gure ikus-entzuleentzat.

–Zera, orain bat-batean bururatu zait, Erdi Aroa eta genero distopikoa berriro boladan daudenez, eta historia ezinbestean errepikatzen dela dirudienez, fede auto futurista bat antola genezake Donostia Arenan, Ilunbeko zezenplazan. Lekuak hainbat abantaila ditu. Harmailak

ikus-entzuleentzat, estalkia euria egiten badu ere, ikuskizuna telebistaz emateko azpiegitura egokiak.

–Ideia ikusgarria duk –bixkarrekoa eman dio gorbatadunak bizardunari–. Zer iruditzen zaik izenburu hau? *Autodafé reloaded*. Sorginak, Inkisizioa, tortura... Lancrek aipatu dituen Donibane Lohizuneko gertaerek ere askorako ematen ditek. Pentsa, seiehun emakume inguru erreta hiltzera kondenatuta... Emakume saldo bat erakar genezakek ikuskizunera.

–Bai, kalean eta hedabideetan iragarkiak jarri, sare sozialetan kanpaina abiatu eta *Merchandising* apur bat egin beharko genuke ikuskizunaren aurreko asteetan, sorginen irudiak dituzten txanoak, amuletoak eta pizgailuak aterata ikus-entzule gehiago erakartzeko.

–Eta ikuskizuna amaitutakoan, borreroari egindako elkarrizketa sakon bat eman genezakek, berari egindako galderen bidez jendearen arretari eusteko. Esaterako zein tortura teknika den mingarriena, zer sentitzen duen biktimak torturatzen dituenean, edo antzeko beste xehetasun morbosoari buruzko galderak. Ikusiko duk *The Art of Killing*

filmako borreroen adierazpenak huskeria izango dituk gure filmeko borreroaren adierazpenen aldean.

Solasean ari direla, zaborra biltzeko makina bat sartu da plazan sekulako zarata atereaz zoruan metatutako zaborra biltzera. Zoldaz eta lokatzez betetako edari latak, botilak eta janari bilgailuak biltzen hasi da. Sekulako kiratsa dario Konstituzio plazari, Konstituzio plazak zabortegi handi bat dirudi.

Kamioi atoidunak irten dira plazatik. Langileak ere bai. Telebista kateko bi arduradunak joatekotan direla, hurbildu egin natzaie. Erdi mozkortuta nago oraindik.

–Bazoazte? –galdetu diet.

–Bai, baina zu oraindik festa gogoz zaude nonbait –esan didate solaskideek.

–Ez duzue grabatu behar akusatua nola erretzen duten?

–Akusatua nola erretzen duten?

Entzun ez dudan zerbait esan diote elkarri ahopeka.

–Bai, oholtza gainean dagoen bufoia –argitu diet–. Jendetzaren erdian egon naiz orain arte hura noiz erreko duten zain.

–Jendetzaren erdian? –irri egin didate.

–Zeri egiten diozue barre? Nire sukaldari txanoari?

Elkarri begiratu diote berriro nire solaskideek algara batean.

–Sukaldari txanoa? Kaka nahaste ederra zaukak honek buruan –esan dio gorbatadunak bizadunari, entzuten ari dena ezin sinetsirik.

–Bakoitzak bere zoroa bizi du mundu honetan –erantzun dio solaskideak.

–Gure mundu errealean bizi beharrean, beste mundu irreal, alderantzikatu edo paralelo batean bizi duk morroi hau.

–Nondik begiratzen zaion, mundu erreal eta irrealek mundu bakar bereizezin bat osatzen dute –esan dio txantxetan zoro-barrea eginez bizardunak.

–Nondik begiratzen zaion?

–Bai, irudi luke hemen deus ez dela gehiago erreal, errealitatea bera ere irreal dela aldi berean.

–Tira, goazen hemendik guri ere burutik egin, eta mundu paraleloren batean amaitu baino lehen.

Algaraka abiatu direla, nigana zuzendu da gorbataduna ezustean:

–Ahaztu baino lehen, gogoan izan, aixkidea, ez zarela jendetzaren erdian egon, plazako oholtza gainean baizik, eta buruan daukazuna ez dela sukaldari txanoa, bufoi kapela baizik.

Esan didana ezin sinetsiz, burua ezker-eskuin mugitu eta solaskideari ezetz esaten saiatu naiz. Baina nire txanoaren txintzarri hotsa eta hil ezkilen oihartzuna entzun besterik ezin izan dut egin aho zabalik, hitz bakar bat ahoskatzeko ere ezgauza. Izaturik neure mihia erreta dudala sentitu dut. Eta bat-batean neure burua ikusi dut Konstituzio plazako oholtzan bufoiez mozorrotuta sugarretan kiskaltzen, «Jakintsu itsu batek aspaldi esan zuenez, hau dagoeneko gertatu da eta berriz ere gertatuko da. Ez dut atsegin bufoia izatea baina are gutxiago zuen larruan egotea. Gaur nire bizia epaituz zuen patu iluna erabaki duzue» oihuka, jendetza asaldatu bat «heretikoak sutara» garrasika ari den bitartean.

Konstituzio plaza orroaka hasi da,

Konstituzio plaza orroaka ari da,

Konstituzio plazaren orroek ez dute etenik

Izerdi patsetan, Konstituzio plazako orroen oihartzun urruna entzuten dudala oraindik, historiaren zama astuna sentitu dut neure baitan, kafe-etxeko hormatik zintzilikatutako 2016ko kultur ekitaldien egutegian dagoen Botticelliren *Infernuko mapa* margolanaren erreplikari begira. Infernuaren irudiari begirik kendu gabe, neure gogoetetan erabat bildua, James Joyce idazleaz gogoratu naiz, eta irlandar idazle atzerriratuak arrazoi osoa zuela pentsatu dut: «Historia amesgaizto bat da, zeinetik esnatu nahian gabiltzan».